



Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2017/5

DIRU-LAGUNTZAK, IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEENTZAT, 2017. urtean

EUSKARA SUSTATZEKO PROIEKTUAK BURUTU DITZATEN

Deialdi honen helburua da diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honen B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez hasiera batez onetsi baitzen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. (2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua).**

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA.
2. Organo emailea:	Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Diru-laguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DEIALDIAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea: Prozesua arautzea irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteei diru-laguntzak emateko, 2017. urtean Iruñean euskara sustatzeko jarduerak antolatu eta egin ditzaten.
2. Deialdiaren helburua: Iruñeko udalerrian euskara sustatzeko jarduerak egin eta programatzea 2017an.
3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak: 3.1.1 Euskara sustatzeko jarduerak izatea. 3.1.2 Nagusiki Iruñeko udal-mugartean egiteko jarduerak izatea. Diru-laguntza zer jarduerarako eskatu eta, salbuespenez, jarduera hori ez bada Iruñean egitekoa, Udalaren interesen aldekoa izan beharko du, zuzenean edo zeharka. 3.1.3 Jarduerak ez egotea Iruñeko Udalak finantzatzen dituen bestelako programaren batean sarturik. 3.1.4 Diru-laguntzaren xedea diren jarduera guztiak 2017. urtean egin behar dira, betiere 2017ko abenduaren 31 baino lehen. Deialditik kanpo geratuko dira: 3.2.1 Iruñeko Udaleko alor beraren edo beste alor baten beste deialdi batean udal diru-laguntzen xede diren edo izan daitezkeen proiektuak. Zehazki, eta bereziki, haien xede edo helburua dela medio beste udal-alorretan edo administrazio publikotan egokiagoak izan daitezkeenak, dela herritarren partaidetzakoak, gizarteratzekoak, berdintasunekoak edo gazteriakoak direlako dela hizkuntzen irakaskuntzarekin, kirol jarduerekin edo jardun publikoari dagokion beste edozein esparrurekin zerikusirik dutelako. Hartara, Udalak berak proiektu horiek bidera ditzake egokien jotzen dituen deialdietara. 3.2.2. Izaera kultural edo artistikoa duten euskarazko proiektuak, horiek aintzat hartzen baitira Iruñeko Udalaren "jarduera kulturalak eta artistikoak egin eta programatzeko entitate kultural eta artistikoei diru-laguntzak emateko" deialdi orokorrean. Aurrekoa gorabehera, deialdi honetara aurkeztu ahalko dira



izaera kultural edo artistikoa edukita eta euskara sustatzeko asmoz programazio zabalago baten barnean dauden jarduerak.

3.2.3. Aurten beste udal-programen eskutik finantzamendua jasotzen duten edo jaso dezaketen proiektuak, Iruñeko Udalarekin lankidetzat-hitzarmena, administrazioko kontratua edo negozio juridikoa sinatua dutenak.

3.2.4. Irakaskuntza-planetan aurreikusitako irakaskuntza-proiektuak eta irakaskuntza-proiektu ez-arautuak.

3.2.5. Telebista, irrati eta prentsako komunikazio-proiektuak, bertsio digitalak barne.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRU-LAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren gehieneko zenbateko osoa kreditu erabilgarrien barruan: 82.500 €

Diru-laguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 50/33501/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Diru-laguntzaren zenbatekoa kasuan-kasuan xedatuko da, deialdi honen H letran ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuta zenbat puntu lortu eta horren arabera. Behin eskaera bakoitzaren puntuazioaren gainean balorazioa egin eta gero, eta laguntzen zenbatekoa jakiteko, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- 82,50 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuak: Onartutako aurrekontuaren % 30.
- 70 eta 82,49 puntu bitarte lortu dituzten proiektuak: Onartutako aurrekontuaren % 25.
- 60 eta 69,90 puntu bitarte lortu dituzten proiektuak: Onartutako aurrekontuaren % 20.
- 50 eta 59,90 puntu bitarte lortu dituzten proiektuak: Onartutako aurrekontuaren % 10.

Ezein entitatek ezingo du, guztira, 18.000 euro baino gehiagoko diru-laguntza jaso, deialdi honetan aurkeztutako programengatik.

4. Hainbanatzeko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Eman beharreko diru-laguntzen baturaren emaitza handiagoa bada deialdi honetan eskura dagoen gehienezko zenbatekoa baino, diru-laguntza hauetarako izendatu den gehienezko zenbateko osoa hainbanatuko da ezarritako baldintzak betetzen dituzten onuradunen artean, eta diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da haien zenbatekoen batuketan deialdiaren kreditura egokitzeraino.

5. Hainbat urtetarako deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Hainbat urtetarako deialdia izanez gero, hainbat urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egongo dira.

6. Urtekoak:

Aurtengo zenbatekoa:	82.500 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa:	€
1. urtekoa:	€	3. urtekoa:	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:



1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Onuradun izan daitezke diru-laguntzaren oinarri den egoeran dauden pertsona edo entitateak, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta paragrafo honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea, eskabidea aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.

b) Irabazi-asmorik gabekoa izatea.

c) Iruñean edukitzea egoitza edo ordezkaritza. Nolanahi ere, deialdi honen onuradunak izan daitezke baldintza hau bete ez, baina Iruñeko udalerrarentzat eta bertako herritarrentzat onuragarri diren proiektuak aurkezten dituzten entitateak.

f) Iruñeko Udalarekin lankidetzaz hitzarmenik, zerbitzu-kontrataziorik edo beste edozein kontratu zein konpromiso motarik sinatu ez izana, eta Iruñeko Udaleko alor honen edo beste edozein alorren diru-laguntzarik jaso ez izana proiektuan garatu beharreko jarduera bera edo antzekoak egiteko.

Diru-laguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, diru-laguntza eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

- Behar bezalako publizitatea egiteko betebeharra, jakitera emate aldera Iruñeko Udalak finantzatu dituela diru-laguntza jaso duten programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak: ☒ BAI ☐ EZ

Pertsona edo entitate onuradunak laguntza jaso izanaren berri emateko hartu behar dituen neurriak:

☒ Iruñeko Udalaren irudi instituzionala jartzea.

☒ Legendak karteletan, inprimatutako materialetan, bide elektronikoetan, ikus-entzunezkoetan eta abarretan.

☐ Oroitzapen-plakak.

☒ Aipamenak hedabideetan.

☐ Beste batzuk:

- Diru-laguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:



F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Hasierako proposamena berriz egokitu behar denean jarduerak zein errealitatetan garatu behar diren eta horretara, aldaketak egiten ahalko dira proiektua gauzatzean, hasierako aurreikuspenei dagokienez, ustekabeko inguruabarrak direla medio, inguruabar horiek kontuan hartzekoak badira jarduera zuzen betetzeko eta aldaketa horiek ez badute eragiten funtsezko aldaketarik proiektuan. Aldaketa horiek egin ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio diru-laguntza kudeatzen duen unitateari, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen.

Proiektua garatzen den bitartean onuradunak sartzen baditu aldez aurretik baimendu gabeko aldaketak, zilegi izanen da jasotako diru-laguntzak osorik edo hein batean itzularaztea, edo, hala badagokio, diru-laguntza kobratzeko eskubidea osorik edo hein batean galtzea. Proiektuaren barruan hainbat jarduera independente baldin badaude, baldintza horrek soilik eragingo die baimenik gabeko aldaketak izan dituzten jarduerari.

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Diru-laguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkeztu ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia - Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Hilabete bat, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskabideak interesdunek sinaturik –edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari itza egiaztatzen duen pertsona batek sinaturik– aurkeztu behar dira, deialdi honen I. Eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emango delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoren baten eskuetan badaude, haien ordezkari erantzukizuneko aitortzen bat aurkeztu ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, eta bertan adieraziko da noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, bost urte ez badira bete agiriei dagokien prozedura amaitu zenetik.

Diru-laguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

Eskabideek honako betebeharrak bete beharko dituzte, eta bete ezean ez dira onartuko:

a. Entitate bakoitzak eskabide bakar bat aurkeztu ahalko du, eta horretan proiektu bat edo gehiago erantsi; proiektu bat baino gehiago aurkeztuz gero, argi identifikatu behar da



proiektu bakoitza, eta bakoitzeko deskribapen-memoria eta gastu eta sarreraren aurrekontua egin beharko da. Proiektuek behar bezain garaturik egon beharko dute, eta helburuei buruzko informazioa eta horien baliabideak behar bezala justifikaturik.

b. Proiektuek deialdiaren klausuletan adierazitako printzipio eta lehentasunen arabera izan behar dute, eta ez dute egon behar Udaleko beste deialdietan diru-laguntza aproposagorik jasotzeko egokieran.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.

Ondokoak frogatzen dituzten egiaztagiria: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkeztu den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela. Halaber, entitatearen IFKren edo IFZren eta legezko ordezkariaren NANaren zein estatutuen edo eskrituren kopia aurkeztu behar dira, salbu G.3 idatzi-zatian ezarritako kasuetan.

b) Erantzukizuneko aitortzea, deialdi honen II. Eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorra eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergeri eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, agiri hauek:

☒ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☐ Eskatzailearen erantzukizuneko aitortzea, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, hamabost eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko diru-laguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, bertan adierazita beste administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatari helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik dagoeneko jasotako diru-laguntzen zerrenda eta eskatutako kopurua, bertan zehaztuz entitateen izena eta jasotako zenbatekoa. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. Eranskina). ☒ BAI ☐ EZ

f) Eskatzen den diru-laguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duen memoria.

g) Finantzaketa-plana, diru-laguntza zertarako eskatu eta proiektu, ekintza, jarduera edo programa horrena.



"Deskribapen-memoria" bat bete beharko da (deialdi honen IV. Eranskina) diru-laguntzak jasotzeko aurkezten den proiektu bakoitzeko.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatua, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautotuak diren kopiak.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Aurkezten diren jarduerak baloratzeko eta laguntzaren zenbatekoa zehazteko, Balorazio Batzordeak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan, eta horiei ondoren azaltzen diren puntu-kopuruak emanen zaizkie, betiere, guztira, 100 punturen gainean:

1. Entitatearen ezaugarriak: 20 puntu

a) Entitatearen ibilbidea, jarraitutasuna, egonkortasuna, eta agertutako ardura 8 puntu

B) Antzeko entitaterik ez egotea..... 2 puntu

c) Entitateak genero-berdintasun esplizituki jasotzea estatutuetan, helburuetan edo eginkizunean, jarduera-memorian edota antolaketa-egituran 5 puntu

d) Euskara izatea elkartearen hizkuntza ofiziala eta egunerokoan erabiltzen duena; edo, euskara barne-funtzionamenduko hizkuntza izan ezean, entitateak euskararen erabilerarako barneko normalizazio-plan bat edukitzea..... 5 puntu

1. Proiektuaren kalitatea eta interesa (60 puntu), honela banaturik:

a) Proiektuak eragin nahi duen hizkuntza-erabileraren alorraren interesa 15 puntu.

b) Zuzentzen zaion populazio-sektorea 15 puntu

c) Proiektuaren berrikuntza-elementuak 5 puntu

d) Genero-berdintasuna txertatzea metodologian (abiarazpena, jarraipena eta ebaluazioa) edota edukietan (kontuan hartuta helburuak, jarduerak, hartzaileak, eta sustatzen dituen balioak) 10 puntu

e) Programaren komunikazio-planaren egokitasuna alorren ezaugarriekiko edo zuzentzen zaion populazio-sektorearekiko 10 puntu

e) Herritarrendako irisgarritasuna 5 puntu

2. Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (20 puntu), honela banaturik:

a) Aurkeztutako aurrekontuaren egokitasuna abiarazi nahi den jarduera edo proiektuarekiko 8 puntu.

b) Jarduerak sortutako diru-sarrerak edo entitate eskatzaileak sortutakoak, betiere diru-laguntza zer programarako eskatu eta hori finantzatzeko erabiliko badira (diru-sarrerak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta puntuazio altuagoa)..... 4 puntu

c) Bestelako finantzaketa-iturriak: beste diru-laguntza batzuk, babesleak... (diru-sarrerak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta puntuazio altuagoa) 8 puntu

Guztizko puntuazioaren % 50 lortu ez duten entitateek ez dute inolaz ere diru-laguntzarik jasoko.

Zuzen bete ez diren datuak edo zuhurtziagabekoak izan daitezkeenak baloraziotik kanpo utziko dira.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako pertsona hauek osatua:

Batzordeburua:	Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkaria
-----------------------	---



Batzordekideak:	Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria
1.	Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko teknikari bat
2.	Iruñeko Udaleko euskara koordinatzailea
3.	Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorreko ekonomialaria
Idazkaria:	Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko administrari euskaldun bat

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak aurre-ebaluazio bat egingo du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona edo entitate onuradunek halakoak izateko bete behar dituzten baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea ebaluazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) letran aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat egingo du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

PROZEDURAN SARTU IZANAREN KOMUNIKAZIOA

Instrukzio organoak txostena egin eta izapide-ebazpena emango du, zeinaren berri emango baitzaie entitate eskatzaileei, hartara jakin dezaten beren eskaera aintzat hartu dela eta horrek ezarritako baldintza formalak betetzen dituela, eta hala behar izatera, dagokion alegazioak aurkez ditzaten.

PROIEKTUEN AURREZ AURREZKO DEFENTSA

Proiektuak hobeki ezagutzeko xedez, Batzordeak aukera emanen die horiek aurrez aurre aurkeztu eta defendatzeko hori egin nahi duten eskatzaileei. Aurkezpenak argia eta zehatza izan behar du, gehienez ere hamar minutuan egitekoa, eta gero Batzordekideek egindako galdera-saio batekin osatu ahal izanen.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Balorazio-batzordeak banan-banan jakinaraziko die eskatzaileei horietako bakoitzarentzat ematen duen ebazpen-proposamena, eta eskatzaileek 3 egun naturaleko epea izango dute ebazpena onartzen dutela berresteko.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: diru-laguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaera ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsitatzat



joko da.

K. PUBLICIDAD DE LAS SUBVENCIONES CONCEDIDAS:

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Non argitaratu:

Boletín Oficial de Navarra

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Diru-laguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako diru-laguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRU-LAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diru-laguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honi dagokionez, honako gastu hauek ahalko dira diruz lagundu:

a) Zuzeneko kostuak

-Jarduera-programa gauzatzeko beharrezkoak diren langileen edo artisten soldata-kostuak eta gizarte-segurantzakoak, barne harturik entitate onuradunean lanean ari direnenak eta jarduerarako kontratatzen diren pertsonenak. Entitatean lanean ari diren langileen kasuan, jarduera gauzatzeko lanetan zenbat denbora eman eta horri dagokion alde proportzionala egotziko zaio proiektuari.

-Langileen dietek eta joan-etorriek eragindako gastuak, betiere justifikaturik badaude eta proiektua gauzatzeko guztiz beharrezkoak badira.

-Proiektuaren ekintzak gauzatzeko beharrezkoak diren kanpoko bitartekoak –hala nola ekipoen eta baliabide materialen alokairuak, ondasun kontsumigarriak, zerbitzu profesionalak edo artistikoak, aseguruak eta beste– kontratatzeak eragindako gastuak.

-Proiektuak barne hartzen dituen jarduerak ezagutzera emateko, horien publizitatea egiteko eta, halakorik bada, merkaturatzeko gastuak.

-Tokikoak ez diren tributuak diru-laguntzaren xede izan daitezke, diru-laguntzaren onuradunak zuzenean ordaintzen baditu. Inola ere ez dira diru-laguntzak estaltzeko moduko gastutzat joko berreskuratzen edo konpentsatzen ahal diren zeharkako zergak. Zehazki, Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZa) dagokionez, benetako kostuek eraginda onuradunak ordaindu dituen gastuen kopuruak izanen dira bakarrik diru-laguntzen xede, betiere kengarriak ez badira; izan ere, kengarriak izan badaitezke, onuradunak berreskuratzen ahalko ditu zergaren zenbatekoak.

Proiektuaren jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun inbentariagarriak erosiz gero, estaltzeko moduko gastutzat joko dira proiektuari haien amortizazioa egozten ahal zaion proportzioan, betiere kontabilitatearen irizpide orokorrekin bat.

b) Zeharkako kostuak:

Zeharkako kostuen artean sartuta daude hala entitate onuradunak garatzen dituen jardueretako batzuei egozten ahal zaizkion gastu orokorrak nola ezein jarduera zehatzi egozgarri izan ez eta diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren gastu finkoak.



Proiektu bakoitzak eragindako zeharkako kostuek proiektuaren aurrekontuan sartuta egon behar dute, eta ezin izanen dute jo, inongo kasutan, proiektuaren guztizko kostuaren % 12 baino gehiago. Diru-laguntzaren xede diren gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diru-laguntzen xedea izanen:

Ondasun higiezinak, higigarriak eta azpiegiturak erostearekin eta finantzatzearekin zerikusirik duten guztiak, salbu, aurreko atalean adierazitakoarekin bat, proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun inbentariagarriak erosteak eragindako gastuak.

Entitateko langileen ordainsariak, baldin eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata halako 4 gainditzen badituzte.

Halaber, ezin izanen dira diru-laguntzarekin estali proiektua gauzatzeko guztiz beharrezkoak ez diren gastu-kontzeptuak eta haien zenbatekoa modu fidagarrian zedarriturik ez dutenak.

2. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: *Justifikazio-aldiaren epea amaitu baino lehen, betiere gastuek diru-laguntzen xede diren jarduerekin harreman zuzena badute.*

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: % 100

Onuradunak inola ere ezin izanen du zehaztu diru-laguntzaren xede diren jarduerak osorik edo zati batean egitea Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30.7 artikuluan zehazten diren pertsona eta entitateekin.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoa. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diru-laguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: % 70

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren diru-laguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diru-laguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izango da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta



dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da jakinarazpen hori, eta betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa frogatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Diru-laguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- ☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.
- ☒ Konturako ordainketa:
- ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☐ Ordainketa aurreratua:
 - ☒ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde aurrekoaren artekoa:

Diru-laguntzen entitate esleipendunek proposatutako jarduerak egitea errazte aldera, diru-laguntzaren % 70 deialdia ebazten den unean bertan ordaintzeko agindua emanen da, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 33. artikuluekin bat, baldin eta dena delako entitateak euskarazko jarduera kultural eta artistikoendako diru-laguntzen aurreko bi urteetako deialdietan diru-laguntzarik jaso eta hori oso-osorik justifikatu badu. Jarduera egin eta gastuak justifikatu eta gero, gainerako % 30 ordainduko da. Gainerako entitate esleipendunek % 50 jasoko dute diru-laguntzak esleitzeko unean, eta gainerakoa behin jarduera justifikatu dutenean.

Diru-laguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu onuradunei ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

- ☐ BAI ☒ EZ
- Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta diru-laguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

- ☒ Justifikazio-kontua:
- ☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).
 - ☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.
Bestelako edukirik: ☐ BAI ☐ EZ
 - ☒ Justifikazio-kontu sinplifikatua.

Justifikazio-kontu sinplifikatua honako agiri hauek osatuko dute:

a) Diru-laguntza honen xede den proiektua justifikatzeko jarduketa-memoria, non xehetasunez aitortuko baitira diru-laguntzen bidez finantzatu diren jarduerak eta haien kostua (VI. Eranskina: Justifikazio Memoria eranskineko erudian ezarritakoarekin bat).

Hona hemen memoria horren edukia:

- Proiektuaren izena.
- Diru-laguntzaren xedea, aurkeztutako aurrekontu eta proiektuarekin bat.



- Egindako jarduerak eta erdietsi nahi ziren helburuen zein lortutako emaitzen deskribapena.
- Proiektua garatzean egindako aldaketak, halakorik balitz.
- Finantzaketa-bideen zerrenda: diru-laguntzarekin, funtsa propioekin edo beste zenbait diru-laguntzarekin finantzatu diren jarduerak deskribatu eta haien kostua adierazi.
- Ondorioak.
- Diru-laguntzaren xede diren programa eta jarduerak abiarazteko erabilitako hedatze-elementu bakoitzaren bina ale.

b) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda, izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, non ondokoak identifikatuko baitira: hartzekoduna, ordainketa-agiria, zenbatekoa, jaulkitze-data eta, jada ordaindua izanez gero, ordainketa-data.

c) Jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak edo diru-laguntzak xehe-mehe adierazita, horien zenbatekoa eta jatorria barne.

d) Halakorik balitz, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli izanaren ordainketa-agiria.

Laginketa-teknikak erabilia, egoki jotako gastuen zein ordainketen egiaztagiria eskatuko dira, eta haien bidez diru-laguntzaren aplikazioa egokia izan den ala ez egiaztatuko da.

☐ Gastuaren egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orrien aurkezpena (Ordenantzaren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epea: Diru-laguntza justifikatu eta, horrenbestez, agiri frogagarriak aurkezteko epea hiru hilabetekoa izanen da, diru-laguntzaren xedea den jarduera noiz egin eta hortik aitzina, eta, edonola ere, 2017ko azaroaren 15era bitartekoa. Justifikazioa osorik ezin bada aurkeztu, diru-laguntzaren xedea den jarduera amaitu ez delako, aurreko paragrafoan adierazitako epea luzatuko da, 2017ko abenduaren 31ra arte.

Agiriak ezaugarri-koadro honetako G.1) puntuan adierazitako bitartekoren baten bidez aurkeztu behar dira.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako diru-laguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –diru-laguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna, eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.



Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Justifikazioa aurkezteko eginbeharra betetzen ez bada –diruz lagundutako jardueran funts publikoen erabilera justifikatzeko beharrezko agiriak ez aurkeztea barne–, edo behar adinako justifikaziorik aurkezten ez bada, diru-laguntza itzuli beharko da, osorik edo parte batez, edo gainerako % 40 hori kobratzeko eskubidea galduko da, betiere ez-betetzearen maila eta gainerako inguruabarrak kontuan harturik.

b) Edozein zio dela medio gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira, Iruñeko Udalak organo kudeatzailearen bidez horretarako berariazko baimenik eman gabe.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

1.- Emandako diru-laguntza diruz lagundutako proiektua egiteko bakarrik erabiliko da. Beste ezertarako erabiltzeak berekin ekarriko du diru-laguntza kobratzeko eskubidea galtzea edota jasotakoa itzuli behar izatea.

2.- Baldin eta benetako defizita edo benetako gastuak eskaera egitean aurreikusi eta diru-laguntzaren zenbatekoa hasiera batean zedarritzeko baliatutakoak baino txikiagoak badira, aintzat hartuko da inguruabar hori, eta proportzioan murriztuko da behin betiko eman behar den kopurua.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

☒ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEN AITORPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.**

☒ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEN AITORPENA, XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**

IV. ERANSKINA. DESKRIBAPEN-TXOSTENA, DIRU-LAGUNTZA ZERTARAKO ESKATU ETA PROIEKTU, EKINTZA, JARDUERA EDO PROGRAMA HORRENA

V. ERANSKINA. FINANTZAKETA-PLANA, DIRU-LAGUNTZA ZERTARAKO ESKATU ETA PROIEKTU, EKINTZA, JARDUERA EDO PROGRAMA HORRENA

VI. ERANSKINA. JUSTIFIKAZIO MEMORIA

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*



-I. ERANSKINA-

-DIRU-LAGUNTZEN ESKABIDEA-

PERTSONA EDO ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZietateAREN IZENA					
NAN, IFZ, AIZ edo IFK			BIZILEKUA		TELEFONOA
Zk.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	
[EZABATU EZ DAGOKIZUNA]					
BEREZ edo HONAKO HONEN IZENEAN*:					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZietateAREN IZENA				NAN, IFZ, AIZ edo IFK	
JAKINARAZPENETARAKO DATUAK					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZietateAREN IZENA					
NAN, IFZ, AIZ edo IFK			BIZILEKUA		
Zk.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	TELEFONOA
FAXA		POSTA ELEKTRONIKOA			

Jakinaren gainean nago NAOn argitaratu dela (zk:; data:)
diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, xede honetarako:

.....

ESKAERA: Kontuan har dadila eskabidea. Horretarako, honako agiri hauek aurkezten ditut:

- ☐ Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.
- ☐ Erantzukizuneko aitortpena, deialdi honen II. Eranskina eredu gisa hartuta, ziurtatzeko pertsona edo entitate eskatzaileak bete egiten dituela Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eta deialdi honek exijitzen dituzten baldintzak, eta Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen diren onuradun izateko ezein debeku-ziok ez duela ukitzen.
- ☐ Ziurtagiria, pertsona edo entitate eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela frogatzeko, deialdiaren G.4) puntuan zehaztutako moduarekin bat.
- ☐ Adierazpen bat, bertan adierazita beste administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik dagoeneko jasotako diru-laguntzen zerrenda eta eskatutako kopurua, bertan zehaztuz entitateen izena eta jasotako zenbatekoa. (III. Eranskina).
- ☐ Memoria bat, diru-laguntza zertarako eskatu eta proiektu, ekintza, jarrera edo jarduera hori deskribatzen duena.
- ☐ Deialdi honen G.4) puntuan zehazten diren agiriak.

Iruñean,(e)koaren(e)an
(Sinadura)

DATUEN BABESA - Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu deialdi honetan jasotako datu pertsonalak diru-laguntza hau kudeatzeko baino ez direla erabiliko, eta datu horiek Iruñeko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan biltzen ahalko direla. Hain zuzen ere, Iruñeko Udalera zuzenduta gauzatzen ahalko duzu eskubidea datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko, Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001 Iruña) edo egoitza elektronikora (www.pamplona.es) joaz.



-II. ERANSKINA-
-ERANTZUKIZUNEN AITORPENA-

Izen-abizenak:
Helbidea (jakinarazpenetarako):

NAN: Telefonoa: Faxe:
Helbide elektronikoa: Bere kabuz edo honako hau
ordezkatzuz (dagokionaren arabera): Helbidea:
..... IFZ:

Telefonoa: Faxe: Jakinaren gainean nago diru-
laguntzetarako deialdi hau egin dela, norgehiagokako araubidean, honako xede hau hartuta:
.....
.....
.....

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT:

- Bete egiten ditut onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek aipatzen dituen betekizun orokorrak eta Deialdi honetan ezarritako berariazko betekizunak oro.
- Ez nau ukitzen Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikulua onuradun izateko aipatzen dituen debeku-zioetako bakar batek ere.
- Egunean ditut zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.
- Konpromisoa hartzen dut diru-laguntza emateko oinarritzat hartu diren helburuak eta jarduerak betetzeko erabiliko dudala eskatutako laguntzaren zenbatekoa.
- Konpromisoa hartzen dut adierazpen honek zehazten dituen inguruabarrak ziurtatzeko, errekerimendua noiz egin eta hortik hamabost eguneko epean, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 15.7 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin eta sinatzen dut,

Iruñean,(e)koaren(e)an
(Sinadura)

DATUEN BABESA - Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu deialdi honetan jasotako datu pertsonalak diru-laguntza hau kudeatzeko baino ez direla erabiliko, eta datu horiek Iruñeko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan biltzen ahalko direla. Hain zuzen ere, Iruñeko Udalera zuzenduta gauzatzen ahalko duzu eskubidea datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko, Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001 Iruña) edo egoitza elektronikora (www.pamplona.es) joaz.



-III. ERANSKINA-

-ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZA ESKATU IZANAREN GAI NEAN-

Izen-abizenak:
Helbidea (jakinarazpenetarako):

NAN: Telefonoa: Faxe:

Helbide elektronikoa: Bere kabuz edo honako hau
ordezkatz (dagokionaren arabera): Helbidea:
..... IFZ:

Telefonoa: Faxe: Jakinaren gainean nago diru-
laguntzetarako deialdi hau egin dela, norgehiagokako araubidean, honako xede hau hartuta:
.....
.....
.....

Eskatutako diru-laguntzaz bezainbatean, HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT:

- ☐ Ez diet ezein diru-laguntzarik eskatu, deialdi honen xede bererako, nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste ezein partikularri –ezta haiengandik halakorik jaso ere–.
- ☐ Diru-laguntza hauek eskatu dizkiet, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste edozein partikularri:
- ☐ Diru-laguntza hauek jaso ditut, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edota partikular hauen eskutik:

Eskatutako diru-laguntzak: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)

Jasotako diru-laguntzak: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)

Iruñean, ____ (e)ko ____aren ____ (e)an

(Sinadura)

IV. ERANSKINA. DESKRIBAPEN-TXOSTENA

BEHARREZKOA DA, PROIEKTUA ZUZEN BALORATZEKOTAN, ERANSKIN HONEN ATAL GUZTIAK BETETZEA. KONTUAN HARTU ERANSKIN HONETAN AGERTZEN EDO ZEHAZTEN EZ DEN INFORMAZIOA EZIN IZANEN DELA BALORATU.

(Eranskin honen gehienezko luzera 8 foliokoa izan behar du, alde bakar batetik. Kopuru hori gainditzen badu, eskabidea ez da onetsiko)

DESKRIBAPEN-TXOSTENA.

(Txosten bat bete zure entitateak diru-laguntza jasotzeko aurkezten duen proiektu bakoitzeko).

Proiektu zk.:

(Entitateak proiektu bat baino gehiago aurkezten badu, lehentasunaren arabera zenbakitu).

Proiektuaren izenburua:

1. Entitatearen deskribapena.

1.1. Identifikazio-datuak:

Entitatearen izen osoa eta, halakorik balu, laburtua (merkataritza- edo publizitate-izendapena, etab.).

- Kalea eta zenbakia.
- Herria.
- Posta kodea.
- Telefono finkoa eta mugikorra.
- Faxe.
- Helbide elektronikoa.
- Webgunea.

1.2. Harremanetarako pertsonen identifikazioa (bakoitzaren izen-abizenak, telefono finkoa eta mugikorra eta helbide elektronikoa adierazi).

- Legezko ordezkaria (entitatea legalki ordezkatzeko ahalmen juridikoa eduki behar du).

- Harremanetarako pertsona (balorazio-, gauzatze- eta justifikazio-prozesuak dirauen bitartean).

- Proiektuaren zuzendaria (proiektuaren jardueren koordinatzaile teknikoa).

1.3. Entitatearen araubide juridikoa eta eratze-urtea.

1.4. Entitatearen osaera eta kide-kopurua.

1.5. Entitatearen helburuak eta jarduera-ildoak (15 lerro, gehienez).

1.6. Entitatearen mugarri garrantzitsuak (gertaerak, urteak, etab.).

1.7. Azken bi urteetako jarduera esanguratsuenak.

1.8. Nazioko edo nazioarteko elkarte edo entitateko kideak badira, adierazi entitatearen izena, noiztik den kidea eta zein jardueratan ari den.

1.9. Adierazi entitateak erabakirik hartu edo planik onartu duen genero-berdintasunaren inguruan, non genero-berdintasuna esplizituki jasotzen duen estatutuetan, helburuetan edo eginkizunean, jarduera-memorian edota antolaketa-egituran.

1.10. Adierazi entitateak erabakirik hartu edo planik onartu duen, euskara erabiltzearen inguruan, erakundearen egitura eta funtzionamenduan, hala barnekoan nola kanpokoan.

1.11. Argudiatu erakundearen bereizgarritasuna, eta adierazi ba ote dagoen hirian antzeko beste entitaterik, edo helburu eta jarduera bertsuak dituen entitaterik.

2. Proiektuaren kalitatea eta interesa.

2.1. Proiektuaren deskribapen orokorra (20 lerro, gehienez)

2.2. Helburu nagusiak eta horiek lortzeko bideak

2.3. Jarduera populazioaren zein sektoreri zuzentzen zaion

2.4. Proiektuaren jarduerak edo ekintzak, eta horiek gauzatzeko bideak

2.5. Proiektuaren la-taldea: ekintza edo jarduera ezberdinak eginen dituztenen curriculumak labur azalduta.

2.6. Proiektuaren iraupena (noiztik noiz arte):

2.7. Identifikatu proiektuan berritzaileak edo originalak diren elementuak, arteari edo kulturari dagokionez.

2.8. Hedapen- eta komertzializazio-plana. Zehaztu helburu horretarako erabiliko diren ekintza, euskarri edo bide guztiak.

2.9. Adierazi, halakorik balitz, kultur, arte edo gizarte arloetako beste entitateekin batera egitea aurreikusita dagoen lana: deskribatu zertan datzan eta zein diren bere helburuak.

2.10. Adierazi zenbat pertsona arituko diren proiektuan boluntario gisa lanean (zenbat pertsona, haien eginkizunak, arduraldiak, etab.). Adierazi hala proiektuaren jardueraren batean lanean ari diren pertsonak nola entitatearen jardueretan oro har lan egiten dutenak (ezberdintasuna adierazi).

2.11. Adierazi zein neurritan txertatu diren genero-berdintasuneko irizpideak metodologian (abiarazpena, jarraipena eta ebaluazioa) edota edukietan (kontuan hartuta helburuak, jarduerak, hartzaileak, eta sustatzen diren balioak).

3. Proiektuaren eragina Iruñeko kulturaren edo artearen dinamizazioan.

3.1. Kalkulu errealista eta zuhurra egin, proiektuak zenbat pertsonarengana iritsiko den jakiteko. Adierazi proiektuaren **jarduera bakoitza** zein tokitan egingen den, zenbat lagunek hartuko duten parte eta jardueren ezaugarri nagusiak.

Proiektua	Zein tokitan egiten den	Data	Parte-hartzaile kopurua, gutxi gorabehera	Ezaugarri nagusiak

V. ERANSKINA: FINANTZAKETA-PLANA

1.1. Azaldu proiektuaren autofinantzaketa-maila eta bideragarritasun ekonomikoa: diru-sarreraren eta gastuen arteko oreka, diru-sarreraren iturriak, gastuen egitura, aurrekontuaren doitze-maila jarduera-proiektura, sortutako negozioaren tamaina (halakorik balitz), etab.

--

1.2. Proiektuaren datu ekonomikoak bete, ondoko koadroetan:

1.3.a. Proiektuaren aurrekontu orokorra:

DIRU-SARRERAK GUZTIRA	
Baliabide propioak (erakundearen funtsetakoak, programari eskatutako diru-laguntzak at)	
Babesle eta laguntzaileen ekarpenak	
Inskripzioak eta kuotak	
Leihatilan saldutakoa (halakorik bada)	
Besteren bat (zehaztu zein):	
Bestelako diru-laguntza publiko batzuk (adierazi zer administrazio publikotakoa den eta eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa)	
Iruñeko Udalarari eskatutako diru-laguntza	
Diru-sarrerak guztira	

GASTUAK GUZTIRA*	
Langileria	
Proiekturako kontratatua	
Entitatearen langileak, proiektuan proportzionalki ari direnak	
Proiektuaren berariazko gastuak	
Ekoizpen-gastuak (zehaztu)	
Kontratazioak eta kaxeta (halakorik bada)	
Ekipoen eta baliabide materialen alokairua	
Lokalen alokairua	



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

• Hedapena eta komertzializazioa	
• Aseguruak	
• Garraioa	
Gastu orokorrak (zeharkakoak)**	
Gastuak guztira	

* Zehaztu, halakorik balitz, nola kalkulatu den gastu bakoitza.

** Hona gastu orokorrek zer hartzen duten: bulego-materiala, posta, telefonoa, berokuntza, elektrizitatea... bai eta proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren beste zenbait gastu ere.

AMAIERAKO SALDOA: GASTUAK / DIRU-SARRERAK	
--	--

Sinadura:

Data:

Datuen babesa. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 1999-XII-13ko Lege Organikoa betez, jakitera ematen dizugu inprimaki honetan eman dituzun datu pertsonalak deialdi honen kudeaketarako baino ez direla erabiliko, eta Iruñeko Udalaren datu-baseak osatzen dituzten fitxategietan bilduko direla. Hain zuzen ere, Iruñeko Udalera zuzenduta gauzatzen ahalko duzu datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, Erregistro Orokorrera joaz (Kale Nagusia 2 – 31001 Iruña).



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

1.3.b. Proiektua kalkulatzeko metodoen azalpena. Zehaztu aurreko koadroan adierazitako gastuak eta, hala badagokio, kalkulua egiteko erabilitako metodoa.

[illegible]

1.3.c. Proiektuaren kontura kontratatutako langileak.

Izen-abizenak	Entitatearenak (E) Kontratatuak (K)	Egin beharreko lana / Lanpostuaren izena	Proiektuari emandako portzentajea	L o
Guztira				

*Aukeratu kontratatutako pertsona bakoitzari hobekien egokitzen zaiona: lan egunak edo lan orduak.

VI. ERANSKINA. JUSTIFIKAZIO MEMORIA

Izen-abizenak IFZ
..... eta entitate onuradunaren legezko ordezkari gisa,

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN, HONAKO HAU AITORTZEN DUT:

1. Memorian eta gastuen eta diru-sarreraren justifikazio-kontu honetan jasotako datuen egiazkotasuna.
2. Diru-laguntza emateko oinarri diren helburuak bete direla, proiektua gauzatu dela edo jarduera egin dela.
3. Jasotako diru-laguntza honen zenbatekoak, gainerako diru-laguntzekin batera, ez duela gainditzen diruz lagundutako obra edo jardueraren kostu osoa.

(Zigilua eta sinadura)

[illegible]



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

3. koadroa. Egindako gastu orokorren edo zeharkakoen zerrenda izenpetua (bulegoko materiala, posta, telefonoa, berokuntza, argindarra...)

[illegible]

4. koadroa. Egindako langileria-gastuen zerrenda izenpetua (langileen nominak)

[illegible]

5. koadroa. Diru-sarreraren laburpena.

DIRU-SARRERAK GUZTIRA	
Entitatearen baliabide propioak (defizitari aurre egiteko beharrezkoak)	
Babesleen ekarpenak	
Inskripzioak eta kuotak	
Leihatilan saldutakoa (halakorik bada)	
Besteren bat (zehaztu zein):	
Iruñeko Udalari eskatutako diru-laguntza	
Bestelako diru-laguntza publikoak	
Diru-sarrerak guztira	

6. koadroa. Gastuen laburpena.

GASTUAK GUZTIRA*	
Langileria	
- Proiekturako kontratatua - Entitatearen langileak, proiektuan proportzionalki ari direnak	
Proiektuaren berariazko gastuak	
- Ekoizpen-gastuak (zehaztu) - Kontratazioak eta kaxeta (halakorik bada) - Ekipoen eta baliabide materialen alokairua - Lokalen alokairua - Hedapena eta komertzializazioa - Aseguruak - Garraioa	
Gastu orokorrak**	
Gastuak guztira	
GASTUAK GUZTIRA*	
Gastu orokorrak**	
Gastuak guztira	

Diru-sarrerak guztira	
------------------------------	--

AMAIERAKO SALDOA: GASTUAK / DIRU-SARRERAK	
--	--



Sinadura:

Data